

JEKri buruzko informazioa bezeroentzat

Pasa den ekainaren 2an, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. erakundea (aurrerantzean, Bankua) Ekonomiako eta Enpresa Laguntzeko Estatu Idazkaritzak [2021eko maiatzaren 12ko](#) Ebazpenaren bidez argitaratutako jardunbide egokien kodeari (arurrerantzean, Jardunbide Egokien Kodea) atxiki zen. Ebazpen horren bidez argitaratu zen Ministroen Kontseiluaren 2021eko maiatzaren 11ko Akordioa, zeinaren bidez onartzen baitzen COVID-19aren pandemiari erantzunez enpresen kaudimenari laguntzeko ez-ohiko neurriei buruzko martxoaren [12ko 5/2021 Errege Lege Dekretuan](#) abal bidezko finantzazioa duten bezeroentzat berriz negoziatzeko esparrurako aurreikusitako Jardunbide Egokien Kodea. Espainiako Bankuak [berariazko atal bat](#) prestatu du bere web-orrian Jardunbide Egokien Kodeari buruz. Aipatu Jardunbide Egokien Kodea Ministro Kontseiluaren 2021eko azaroaren 30eko Erabakiaren bidez luzatu da. Erabaki hori Ekonomiaren eta Enpresei Laguntzeko Estatuko Idazkaritzaren 2021eko azaroaren 30eko Ebazpenaren bidez argitaratu zen BOEn, eta 2022ko martxoaren 29ko Ministroen Kontseiluko erabaki bidez altatu izan da, Enpresei Laguntzeko Estatuko Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 30eko Ebazpenaren bidez argitaratu zelarik BOEn.

Jardunbide Egokien Kode horretako neurriei atxiki ahalko dira 2020ko martxoaren 17tik 2021eko martxoaren 13ra bitartean (bi egunak kanpo) ICOren abal bidez finantzatutako eragiketen titularrak. Eragiketa horietako baten titularra bazara, Jardunbide Egokien Kodearen babesean eskatu ahal dituzun neurriak azaltzen dizkizugu jarraian:

Jardunbide Egokien Kodeak hiru neurri biltzen ditu: (I) finantzaketa-eragiketen epeen luzapenak (eta, dagokien kasuan, gabealdia egotea edo hura luzatzea); (II) finantzaketa-eragiketak partaidetzako maileguetan bihurtzea; eta, (III) finantzaketa-eragiketen zuzeneko transferentziak (abaldun nagusia murrizteko aplikatuko dira, finantzaketa-eragiketa horietan mugaeguneratua eta ordaindu gabea dena barne).

Pasa den 2022ko ekainaren 1etik aurrera, soilik (III) neurria eskatu daiteke: finantzaketa-eragiketen zuzeneko transferentziak (abaldun nagusia murrizteko aplikatuko dira, finantzaketa-eragiketa horietan mugaeguneratua eta ordaindu gabea dena barne). **Transferentzia horiek finantza-erakundearen baimena behar dute, barne-prozeduren eta emakida- eta arrisku-politiken mende daudelako, eta, beraz, Bankuak ukatu egin ditzake eskabide horiek.**

Jarraian, zuzeneko transferentzien ezaugarri nagusiak azalduko ditugu oso gaisetarik, ezagut ditzazun.

Neurri hori eskatzen duen bezeroak betekizun hauek bete beharko ditu: (i) ez da konkurtso prozeduran egongo, salbu eta prozeduraren barruan hitzarmen bat indarrean jarri bada, ez da ere auzitegien esku-hartzearen mende edo desgaiturik egongo Konkurtso Legearen testu bateginean ezarritakoari jarraituz, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaiturik-aldia amaitu gabe badago; (ii) Estatuko laguntzei buruzko Europako araudiaren mugak bete behar ditu; (iii) ez da epai irmo batez kondenaturik egongo (a) Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituengatik; (b) exekuzioa zapuzteagatik, zigortzeko moduko kaudimengabeziagatik edo desegiteagatik, kaltetutako subjektuetako bat Ogasun Publikoa izan denean; (c) diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdetzeko zigorrera edo prebarikazioaren, funtzionario-eroskeriaren, diru-publikoa bidegabe erabiltzearen, eragimen-trafikoaren, iruzurraren eta legez kontrako ordainarazpenaren edo hirigintzako

delituengatik; (d) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoagatik; (iv) diru-laguntzen edo laguntza publikoen itzulketetan egunean egon behar du ordainketa-betebeharretan; (v) egunean egongo da zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan; (vi) zerga-egoitza ez du izango erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean; (vii) 2020ko fakturazioa, gutxienez, 30% gutxiago izan behar du 2019koa baino; eta, (viii) emaitza negatiboa izango du 2020 galera-irabazien kontuen, zergak eta gero. Aipatu beharra dago hor ere ICOk ezarri dituela betekizun horiek. Zure bulegoan informatu ahalko zara betekizun horiek betetzen dituzula frogatzeko aurkeztu beharko dituzun agiriez.

Neurri hori 2023ko apirilaren 15era arte eskatu ahalko da. Transferentzia zuzenen muga 2.300.000 €-koa izango da, eta eragiketa guztiak Denbora Esparruaren 3.1 atalari jarraituz zenbatuko dira.

Zuzeneko transferentziak ezingo du gainditu ordaintzeko dagoen abaldun printzipalaren % 50, salbu eta (vii) puntuan fakturazioa gutxitzeari buruz azaldutako % 70 baino handiago izango balitz 2020an, 2019 urtearen aldean. Kasu horretan, ordaintzeko dagoen abaldun nagusiaren % 75eraino hel daiteke. Erakundeek ICOn egindakoaren murrizketa proportzionala aplikatuko dute (abal horrek estaltzen ez duen abal publikoaren finantzazioaren zatian).

Zuzeneko transferentziak erakunde bakoitzaren politika eta prozeduren mende daude, eta beraz, Bankuak uko egin diezaioke eskabide horiek onartzeari.

Abal publikoarekin bezeroak zorpetze handiena duen erakundea izango da zuzeneko transferentzien 'erakunde koordinatzailea'. Kalkulu horretarako ez dira zenbatuko berme errealak dituzten finantzaketa-eragiketak. Eskabidea 'erakunde koordinatzaile' horri zuzenduko zaio, eta nola jokatu behar den azalduko dizu.

Erakunde koordinatzaileak beharrezko informazioa bilduko du bezeroak abal publikoarekin finantzaketa-eragiketak dituen gainerako erakundeen eskutik, eta 2020ko martxoaren 17tik 2021eko martxoaren 13ra bitartean (biak kanpo) egindako zorpetze guztiaren baterako konponbidea eskaintzen saiatuko da (abal publikoarekin zein abalik gabe). Konponbide hori zorra berriz negoziatzeko akordio batean gauzatu da.

Finantza-erakundeak batu ahalko dira edo uko egin ahalko diote erakunde koordinatzailearen planteamentuari (zorra berriz negoziatzeko akordioa). Abal publikoa duen zorpetzearen kasuan, gehiengoa lortuz gero (%66 transferentzia zuzenen kasuan –bezeroa ETE izanez gero, esposizio handiena duten hiru erakundeen laguntzarekin–) gutxiengo disidentea arrastatuko da. **Abal publikorik gabeko zorpetzea** bada, gainerako erakundeak ez dira inoiz bereganatuak izango erakunde koordinatzailearen proposamenarekin, eta berak hala nahi izanez gero batu ahalko da zorra berriz negoziatzeko akordio horretara, edo aldeko alternatiba bat proposatu ahalko dio bezeroari.

Arestian azaldu bezala, aipatu izan diren betekizun horiek agirien bidez egiaztatu beharko dira (aurrekari penalen ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren eta Zerga Administrazioaren ziurtagiriak, BEZaren urteko eredu fiskala, etab.). Erakundeari baimena eman beharko zaio ICOk emandako abal publikoarekin eragiketak dituen bezeroak finantza-erakundearen artean (Jardunbide Egokien Kodeari atxikitakoak) informazioa partekatzeko, erakunde horien artean ICOrekin partekatzeko, ICOri Zerga Administrazioetik eta Gizarte Segurantzatik informazioa lortzeko, eta azken horiek (ZAEA eta GSDO) ICOrekin informazioa partekatzeko.

Jardunbide Egokien Kodearen arabera, BEHIN bakarrik eskatu ahal izango da zuzeneko transferentzia. Salbuespen gisa, bigarren eskaera bat onartuko da, baldin eta eskaera bat egin bada eta bigarren eskaera alde aurretik ezarritako transferentziaren gehieneko zenbatekoaren (1.800.000 €) eta PLEren luzapenaren ondoren ezarritako gehieneko zenbateko berriaren (2.300.000 €) arteko diferentziatik badator (Ministro Kontseiluaren 2021eko azaroaren 30eko Erabakiaren arabera, zeina Ekonomia eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritzaren 2021eko azaroaren 30eko Ebazpenaren bidez argitaratu baitzen BOEn).

Arestian azaldutako neurriak ezartzetik eratorritako kostuak bezeroaren kontura izango dira.

Bankuak konpromisoa hartzen du zirkulatuzailearen lerroak (abal publikoaren babesik ez dutenak) 2023ko ekainaren 30era arte luzatzeko Jardunbide Egokien Kodeko neurrietaren batez onuradun diren bezeroei.

Bezeroa Jardunbide Egokien Kodean biltzen diren neurrietakoren baten onuraduna baldin bada, bertan arautzen denari jarraituz, konpromiso hauek hartzen ditu: **(i)** jarduerari eutsiko dio 2022ko ekainaren 30era arte; **(ii)** ez du dibidendurik banatuko 2021ean eta 2022an; eta, **(iii)** ez du goi-zuzendarientzako ordainsarrietan igoerarik onartuko neurrietako bat aplikatzen deneko bi urteren barruan.

Zalantzarik izanez gero, jar zaitez harremanetan zeure bulegoarekin.



bbva.es



Kutxazain-
sarea



BBVA apli-



BBVA linea
91 298 35 96



BBVA



Sare
sozialak